

2015/11/24an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA .

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 24/11/2015.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Josu Miren Ezkurdia Santamaria
Aitor Zubizarreta Alegria
Maider Landa Ruiz de Azua
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran Garcia
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2015eko azaroaren 24an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ezingo zela etorri jakinarazi zuen Maite Uribe.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 24 de noviembre de 2015, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramón Zubizarreta Alegria , con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusa su asistencia Maite Uribe.

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2015/09/22, 2015/09/29, eta 2015/10/20

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2015eko azaroaren 19ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da 16. kreditu aldaketaren espedientea onartzeko erabakiaren berri.

3.- LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ARETXABALETAKO UDALAREKIN ESKOLA AGENDA 21-ERAKO.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Lankidetza hitzarmena sinatzea Aretxabaletako Udalarekin Eskola Agenda 21 programa udal bietan gauzatzeko. Sinatu beharreko hitzarmenaren baldintzak akta honetako 1. eranskinean finkatuta daude.

Bigarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkaritzan sinatu dezan.

4.- HOBARIA EGITEKO SAN PEDRO 4-KO JABEKIDEEK EGINDAKO ESKAERA.

Eraikinean igogailu bat jartzeko obrak egiteko udal lizentzia emateak sortutako zergan hobaria emateko San Pedro auzoko 4. zenbakiko jabekideek egindako eskaera ikusi da.

Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantzak, 5.3.3.5 artikuluan, ondorengo hobaria aurreikusten du igogailu berriak jartzeko obrentzako:

90%. Kuotan %90eko hobaria izango dute igogailua jartzeko obrek, baldin eta eraikinak bi solairu edo gehiago baditu, bere erabilera nagusia etxebizitzatarako bada, eta instalazioa bat baldin badator berariaz egindako udal ordenantzaren edota planeamenduan exijitzen diren baldintzakin. Hobari hauetarako eskubiderik ez da izango igogailu zaharren ordez berria jartzeko obrak direnean; ezta igogailua familiabakarreko edo familia biko etxeetarako denean ere (berdin da etxeak banakakoak edo atxikitakoak izan), eta oro har, ez dute eskubiderik izango promotore eta kontratistek egindako eraikuntza berriean jarritako igogailuek (nahiz eta eraikuntza berria zaharraren ordez eraiki).

Aurreko paragrafoan esaten den ordenantza onartu bitartean, Udalbatzarra izango da eskuduna hobariak onartzeko, eta horretarako baldintza hauek bete behar dira:

- *Igogailua eraikinaren barruan jarri beharko da.*
- *Obrek indarrean dagoen legeria bete beharko dute.*
- *Aukera guztien artetik, etxebizitzetara irisgarritasunik onena eskaintzen duen instalazioa jarri beharko da.*
- *Instalazioa inguruko antzeko eraikinetakoentzako antzekoa izan beharko da.*
- *Lurzoru publikoan eta lerrokaduretan ahalik eta txikienak izango dira kalteak.*

Kasu bereziren batean, salbuespen gisa, hobari hau eman ahal izango da instalazioa eraikinetik kanpo egin arren, baldin eta gainerako baldintza guztiak betetzen badira.

Udal arkitektu teknikoak 2015eko azaroaren 5ean egindako txostena ikusi da. Bertan jakinarazten du igogailuko kabinaren neurriek ez dituztela betetzen 68/2000 dekretuan ezarritako neurriak.

Eemandako obra lizenziari buruzko espedientea ikusi da, eta bertatik honako hauek ondorioztatzen dira:

BAT.- Ezin dira bete aipatutako neurriak ondorengo arrazoiengatik:

1.- Eraikinaren itxurak (egiturak, eskailera guneak eta etxebizitzak) ezinezkoa egiten du igogailuaren kabinarako eta igogailurako sartzeko ateentzako eskatutako neurriak betetzea.

2.- Ezin dira baldintza horiek aldatu, orain aurkeztutako eskailera gunearen eta etxebizitzen aldaketaren baino askoz ere aldaketa sakonagoa ez bada egiten. Aldaketa horrek kostu ekonomiko handia ekarriko lieke jabekideei.

BI.- 68/2000 Dekretuko 5. eranskinako 3.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eraikinaren egitura ezaugarriengatik edo formarengatik ezin direnean bete 3. artikuluan ezarritako erabilgarritasun irizpideak, eta egoera hori justifikatzeko udal zerbitzuek txostena egin ondoren, lizenzia eman daiteke 68/2000 Dekretuko V. eranskinako 3.3 artikuluan

aurreikusitako salbuespenarekin. Espedientea Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari helaraziko zaio jakinaren gainean egon dadin.

HIRU.- Horregatik, eta udal zerbitzu teknikoek horrela proposatuta, obra lizentzia eman zen V. eranskineko 3.3 artikuluan aurreikusitako salbuespna aplikatuz.

Aipatutako espedientean justifikatuta gelditu dira 68/2000 Dekretua ez betetzearen arrazoiak, eta justifikazio horrek ekarri zuen dekretua ez bete arren obra lizentzia ematea.

Horregatik, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Eraikinean igogailu bat jartzeko obrak egiteko udal lizentzia emateak sortutako EIOZen %90eko hobaria aitortzea San Pedro auzoko 4. zenbakiko jabekideei.

5.- 17. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA (kreditu-transferentzia modalitatea).

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 17. expedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiai egokitzten zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 17. expedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

Gastu partidak: transferitu gura diren kredituak (bajak)

PARTIDA	IZENA	HASIERAKO KREDITUA	GUTXIPENAK	AMAIERAKO KREDITUA
0102.601.442.00.05	MARKESINA:AUTOBUS GELTOKIA	9.000,00	9.000,00	-
0102.622.164.00.01	IBERTSIOAK:UDAL KANPOSANTUA	6.900,00	6.900,00	-
0406.622.342.30.01	IGERILEKUA	12.000,00	6.741,00	5.259,00
0102.649.153.40.01	APLIKAZIO INFORMATIKOAK:GIS	9.690,00	9.690,00	-
0602.626.920.00.01	INFORMAZIO PROZES.EKIPOAK:ADMON GEN	6.000,00	1.153,00	4.847,00
0102.227.163.00.01	GARBITASUNA:BIDE PUBLIKOAK	158.993,03	1.835,00	157.158,03
0404.227.323.20.17	KONTRATUA: HAURTZAINDEGI ZERBITZUA	198.516,58	15.780,17	182.736,41
0304.227.311.00.25	KONTRATUA:ANIMALIEN BILKETA	2.867,73	600,00	2.267,73
0502.481.432.00.01	DIRU LAGUNTZA:TURISMO	550,00	400,00	150,00
0401.481.334.60.01	DIRU LAGUNTZA:ATXORROTX EGUNA	900,00	215,98	684,02
0404.226.320.00.08	EKINTZAK:HEZKUNTZA	7.075,00	1.500,00	5.575,00
0201.220.929.00.01	BULEGO MATERIALA:HALTESKUNDEAK	700,00	439,85	260,15
GUZTIRA		413.192,34	54.255,00	358.937,34

Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENA	HASIERAKO KREDITUA	GEHIKUNTZA	AMAIERAKO KREDITUA
0102.210.153.20.01	MANTENIMENDUA:BIDE PUBLIKOAK	24.718,93	10.000,00	34.718,93
0102.210.153.30.01	MANTENIMENDUA:HIRI ALTZARIAK	-	10.000,00	10.000,00
0102.601.153.30.03	HIRI ALTZARIAK	9.000,00	10.000,00	19.000,00
0102.212.161.00.01	MANTENIMENDUA:URA	10.000,00	20.000,00	30.000,00
GUZTIRA		177.006,81	54.255,00	231.261,81

Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa..

6.- 18. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA (kreditu-gehigarrien modalitatea).

Kredituak aldatzeko 18. expedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzailaek egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako expedientea aplikagarri zaion araudiai egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde

Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostena ikusita, bototara jarri da proposamena.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 18. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

GASTU PROPOSAMENA ETA KREDITU ALDAKETA

	ANEXO ZKIA: 1.KREDITU ALDAKETA ZKIA 18			
AURREKONTU APLIKAZIOA	KONTZEPTUA	HAZIERAKO KREDITUA	GEHIKUNTZAK	AMAIERAKO KREDITUA
1 0701.100.912.00.01 2015	OINARRIZKO ORDAINKETAK:LIBERATUAK	53.418,16	942,38	54.360,54
1 0701.120.132.00.01 2015	OINARRIZKO ORDAINKETAK:UDALTZAINAK	22.310,62	405,62	22.716,24
1 0701.120.151.00.01 2015	OINARRIZKO ORDAIN:HIRIGINTZA	25.350,85	478,11	25.828,96
1 0701.120.153.40.01 2015	OINARRIZKO ORDAIN:ZERBITZUAK MANT.	56.545,91	948,38	57.494,29
1 0701.120.164.00.01 2015	OINARRIZKO ORDAIN:HILERRIA	1.210,99	22,70	1.233,69
1 0701.120.230.00.01 2015	OINARRIZKO ORDAIN:GIZARTE ZERBITZUAK	14.345,22	210,24	14.555,46
1 0701.120.326.10.01 2015	OINARRIZKO ORDAIN:MUSIKA ESKOLA	1.671,31	30,19	1.701,50
1 0701.120.330.00.01 2015	OINARRIZKO ORDAIN:KULTURA	16.462,80	306,27	16.769,07
1 0701.120.332.10.01 2015	OINARRIZKO ORDAIN:LIBURUTEGIA	21.691,09	407,57	22.098,66
1 0701.120.332.20.01 2015	OINARRIZKO ORDAIN:ARTXIBOA	1.446,16	26,47	1.472,63
1 0701.120.333.10.01 2015	OINARRIZKO ORDAIN:KULTUR ETXEA	1.671,30	30,18	1.701,48
1 0701.120.335.00.01 2015	OINARRIZKO ORDAIN:EUSKARA	16.908,95	288,02	17.196,97
1 0701.120.342.20.01 2015	OINARRIZKO ORDAIN:KIROLDEGIA	19.243,76	352,39	19.596,15
1 0701.120.920.00.01 2015	OINARRIZKO ORDAIN:ADMON OROKORRA	38.974,12	714,59	39.688,71
1 0701.121.132.00.01 2015	DESTINO OSAGARRIA:UDALTZAINAK	13.103,16	241,35	13.344,51
1 0701.121.132.00.02 2015	BERARIAZKO OSAG:UDALTZAINAK	43.473,85	784,53	44.258,38
1 0701.121.151.00.01 2015	DESTINO OSAGARRIA:HIRIGINTZA	12.575,81	233,56	12.809,37
1 0701.121.151.00.02 2015	BERARIAZKO OSAG:HIRIGINTZA	29.805,65	523,87	30.329,52
1 0701.121.153.40.01 2015	DESTINO OSAGARRIA:ZERBITZUAK MANT.	34.575,31	580,49	35.155,80
1 0701.121.153.40.02 2015	BERARIAZKO OSAG:ZERBITZUAK MANT.	103.034,67	1.733,52	104.768,19
1 0701.121.164.00.01 2015	DESTINO OSAGARRIA:HILERRIA	809,62	15,31	824,93
1 0701.121.164.00.02 2015	BERARIAZKO OSAG:HILERRIA	2.701,79	48,55	2.750,34
1 0701.121.230.00.01 2015	DESTINO OSAGARRIA:GIZARTE ZERBITZUA	7.319,86	106,12	7.425,98
1 0701.121.230.00.02 2015	BERARIAZKO OSAG:GIZARTE ZERBITZUA	15.586,08	215,36	15.801,44
1 0701.121.326.10.01 2015	DESTINO OSAGARRIA:MUSIKA ESKOLA	709,54	13,07	722,61
1 0701.121.326.10.02 2015	BERARIAZKO OSAG:MUSIKA ESKOLA	2.697,03	48,70	2.745,73
1 0701.121.330.00.01 2015	DESTINO OSAGARRIA:KULTURA	8.643,07	159,20	8.802,27
1 0701.121.330.00.02 2015	BERARIAZKO OSAG:KULTURA	24.070,94	427,86	24.498,80
1 0701.121.332.10.01 2015	DESTINO OSAGARRIA:LIBURUTEGIA	10.422,83	191,98	10.614,81
1 0701.121.332.10.02 2015	BERARIAZKO OSAG:LIBURUTEGIA	22.638,86	403,42	23.042,28
1 0701.121.332.20.01 2015	DESTINO OSAGARRIA:ARTXIBOA	655,16	12,07	667,23
1 0701.121.332.20.02 2015	BERARIAZKO OSAG:ARTXIBOA	1.563,14	27,83	1.590,97
1 0701.121.333.10.01 2015	DESTINO OSAGARRIA:KULTUR ETXEA	709,54	13,07	722,61
1 0701.121.333.10.02 2015	BERARIAZKO OSAG:KULTUR ETXEA	2.697,03	48,70	2.745,73
1 0701.121.335.00.01 2015	DESTINO OSAGARRIA:EUSKERA	8.643,07	159,20	8.802,27
1 0701.121.335.00.02 2015	BERARIAZKO OSAG:EUSKARA	16.082,40	307,19	16.389,59
1 0701.121.342.20.01 2015	DESTINO OSAGARRIA:KIROLDEGIA	8.865,05	164,79	9.029,84
1 0701.121.342.20.02 2015	BERARIAZKO OSAG:KIROLDEGIA	29.136,98	525,48	29.662,46
1.0103.601.454.00.01.2015	IBERTSIOAK:ELIZATEAK	63.485,89	34.468,25	97.954,14
1 0102.601.160.00.10.2015	ELORRETAKO IRISGARRITASUNA HOBETZEA		15.000,00	15.000,00
1 0102.682.933.00.02.2015	ERAIKINA:ARAMBURUZABALA 56	3.205,00	2.795,00	6.000,00
	GUZTIRA	758.462,57	64.411,58	822.874,15

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreren kontzeptuak edota gastuen aplikazioak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
0201.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina:kreditu gehigarriak		61.616,58 €
- GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA			64.411,58 €

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

7.- 2015-EKO HAUTESKUNDE OROKORRETARAKO HAUTESKUNDE MAHAIETARAKO KIDEAK AUKERATZEKO ZOZKETA.

Datorren abenduaren 20an hauteskunde orokorrak egingo dira. Hauteskunde egun horretarako hauteskunde mahaietako zozketa egin ondoren, eta horrela, indarrean dagoen Hauteskundeen Erregimen Orokorraren Lege Organikoaren 26. artikuluan ezarritakoa bete, Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hauteskunde mahaietako osaera, eranskinean izendatutako pertsona eta karguekin, onartzea.

Bigarrena.- Alkatearen esku uztea, Eskoriatzako Udaleko bozeramaileen batzordeak lagunduta, eskualdeko hauteskunde-batzordeak interesdunei alegazioak eta aitzakiak onartzeagatik hutsik geldi daitezkeen karguak betetzeko pertsonak zozketaz aukeratzeko ahalmena.

8.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritako betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2015eko hirugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

9.- KIROL TXARTEL AMANKOMUNATUAREN TASARI BURUZKO ERABAKIA.

Udalbatzarrak, 2015eko urriaren 20an, 2016rako ordenantza fiskalak aldatzea onartu zuen hasiera batean.

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasei buruzko ordenantzaren 9. eranskinean “Kirol instalazioak eta kirol zerbitzuak erabiltzeagatiko tasa” MANKOMUNITATEKO KIROL TXARTELARENENGATIK tasa kobratzea aurreikusten da.

Debagoineneko Mankomunitateak jakinarazi du, azaroaren 5ean eta 9an bidalitako idazki biren bidez, 2016an ez dela zerbitzu hori eman behar; eta beraz, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkututa, Udalbatzarrak erabaki du eraginik gabe uztea KIROL TXARTEL AMANKOMUNATUARENENGATIK 2016rako onartutako tasa.

10.- HIZKUNTZ ERREFORTZUETARAKO LAGUNTZAK JENEROTAN EMATEKO ESKORIATZAKO UDALAK EZARRITAKO OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.

Kultura, Euskara eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hizkuntz errefortzuetarako laguntzak “jenerotan” emateko Eskoriatzako Udalak ezarritako oinarriak hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Araudi hori jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak araudia aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

11.- BERTSO ESKOLA EMATEKO ZERBITZUAREN ESLEIPENA.

Kultura, Euskara eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari Eskoriatzako bertso eskola eskaintzeko zerbitzua adjudikatzea, honako baldintza hauetan:

- **Iraupena:** Zerbitzua 2015eko urria eta 2016ko ekaina bitartean eskainiko da.
- **Prezioa eta ordainketa epeak:** Zerbitzuaren prezio osoa 1.708,44 eurokoa izango da (BEZ salbuetsita) eta ordainketa epeak honako hauek izango dira: zerbitzuaren %33a (hau da 569,48 €) 2015eko abenduan ordainduko da eta gainontzeko %67a (hau da, 1.138,96 €) 2016ko ekainean.
- **Txostenak:** Ordainketa bakoitzarekin batera, bertso eskolari buruzko balorazio txostenak aurkeztu beharko da. Abenduan ikasturtearen hasierari buruzkoa, eta bertan zehaztuko dira eskola egutegia eta ordutegia, talde bakoitzeko kide kopurua eta ikasturtearen hasierako ebaluazioa. Ekainekoan, berriz, ikasturtearen balorazio orokorra aurkeztuko da, egindako ohiko eta ez ohiko jardueren berri emanet.
- **Baldintza teknikoak:**
- Zerbitzua eskaintzeko kontratatuko diren pertsonak, bertso mundua ondo ezagutzen dutenak izan beharko dira eta bertso eskolak emateko behar besteko gaitasuna dutenak. Ahal den neurrian, gainera, Eskoriatzakoak edo ingurukoak izatea hobetsiko da.

- Adinaren araberako bi bertso talde sortuko dira: bata helduena eta bestea gaztetxoena.
- Taldeak, gutxienez, astero ordubetez elkartuko dira, lan-eskaintzan zehaztutako asteetan.
- **Lankidetza:** Zerbitzua eskaintzeko Eskoriatzan bertsogintzaren inguruan dauden baliabideen lagunza erabiliko du Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak, kasu honetan Hankamotx bertso eskolarena, bera baita momentu honetan Eskoriatzan dagoen bertsogintzako talde bakarra.

Bigarrena: Zerbitzu honen prezioa den 1.708,44 euroko gastua onartzea. Kopuru horretatik 569,48 euroko gastua aurtengo aurrekontuaren 0402.226.355.00.08 partidaren kontu onartzea eta gainontzekoa, hau da 1.138,96 € 2016. urteko aurrekontuaren kontu.

Hirugarrena: Aurreko baldintzetan oinarrituta Eskoriatzako Udal eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen arteko kontratu administratiboa sinatzeko ahaleman alkateari ematea.

12.- GAI ZERRENDAN GAI HAU SARTZEA BERRESTEA: UDAL ERAIKINAK GARBITZEAGATIK (URRIAREN 16-TIK AZAROAREN 15-ERA) HEMEN GARBIKETAK ENPRESAK EGINDAKO FAKTURA ORDAINTZEKO AGINDUA.

Aho batez erabaki da gaia gai zerrendan sartzea.

HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak 2015eko azaroaren 15ean egindako 10 faktura aurkeztu ditu (152333 zenbakitik 152342 zenbakirakoak), 2015eko urriaren 16tik azaroaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruzkoak.

Azaroaren 17an egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaleak legezkotasun eragozpena jarri dio expediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura horiek ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko liratekeela (kasu honetan, HEMEN GARBIKETAK SLU) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiak alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

- 2015eko urriaren 16tik azaroaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruz 2015eko azaroaren 15ean HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak egindako fakturak (152333 zenbakitik 152342 zenbakirakoak) ordaintzeko agintzea.

13.- EUDELEK ESKATUTA ALKATEAK AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN EUSKALDUN BERRIARI AITORTZA.

Bertaratutako zinegotzi guztiak ezagutzen dute euskararen nazioarteko eguna dela-eta EUDELei egiten duen adierazpen proposamenaren eredu. Hona hemen horren transkribapena:

ADIERAZPEN EREDUA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN EUSKALDUN BERRIARI AITORTZA

Hazkunde prozesua izan da EAEn euskara biziberritzearena, eta bi izan dira prozesu eredugarri horren zutabe nagusiak: hezkuntza eta helduen euskalduntzea. Azken hamarkada hauetan, milaka eta milaka izan dira heldutan euskara ikastea erabaki duten herritarrak, eta milaka, baita ere, euskararen aldeko hautua eginez, euskararik jakin edo jakin ez, euren seme-alabentzat euskarazko irakaskuntzaren aukera egin dutenak.

2015eko Euskararen Egunean, euskarara hurbiltzeko hautua egin duten pertsonei aitormena egin nahi zaie, euskararen biziberritzeko prozesua etengabe elikatzen baitute pertsona horiek, eta haien guztien gogo, kemen eta ahalegina omendu nahi dira.

Horregatik guztiagatik:

Udal honek konpromisoa hartzen du heldutan euskara ikastea erabaki duten pertsona guztiei jendaurreko aitortza erakustea eta udalerriko kale, plaza, lorategi, iturri, areto edo guneren batir laster EUSKALDUN BERRIA izena jartzea.

Adierazpen hori onartzea eta gaia batzorde informatzailean aztertu ondoren 2016an gauzatzea proposatzen du.

Adierazpena aho batez onartu da.

14.- GALDE-ESKEAK.

Rafael Bernalek galdetu du datorren igandeko herri galdeketaren emaitza gorabehera, udal gobernuak lanean jarraitu behar ote duen hondakinak selektiboki biltzeko sistemak gaur egungo birziklatze tasei eusteko.

Josu Ezkurdia: *noski baietz, inolako zalantzarak gabe. Dakizuen bezala, gure konpromisoa hurrengo igandean Eskoriatzan erabakitzen dena errespetatzea da, emaitza edozein izanda ere; eta zentzu horretan, ulertzan dugu emaitza gorabehera, sistema batzuk beste batzuk baino*

hobeak direla, eta uste dugu bosgarren edukiontzia sistema hobea dela arrazoi askorengatik (merkeagoa, garbiagoa, ekonomikoagoa eta batez ere borondatezkoa delako eta herritarrek hori aukeratzen badute ez dut zalantzari nola erabili jakingo dutela). Ez dugu inolako zalantzari bilketa sistemaren tasek, ez birziklatzearenak, egungo mailari eutsiko diotela eta baita gainditu ere.

Rafa Bernal: *borondatezkoa esaten dugunean, zer esan nahi dugu borondatezkoarekin?*

Josu Ezkurdia: *sistema borondatezkoa dela, selektiboki biltzeko sistema erabili nahi duten pertsonek horrela egingo dutela, eta nahi ez dutenek ez dutela egingo.*

Rafa Berna: *eta, ez duenak egiten nola kudeatzen ditu hondakinak?*

Josu Ezkurdia. Orain, Eskoriatzan, inposatutako sistema bat dago: atez ateko, derrigorrezkoa dena, eta emaitza txarrak ematen ari dena jendea ez dagoelako pozik; eta alderantziz, bosgarren edukiontiaren sistema borondatezko sistema da eta ez dugu inolako zalantzari jende gehienak erabiliko duela. Erabiltzerik nahi ez duen jendeak, kontzientziazio kanpaina onak eginez gero, uste dut inolako arazorik gabe erabiliko duela.

Rafael Bernal: *orduan, jende horrek errefuxaren bidez kudeatuko du?*

Josu Ezkurdia: *bost edukiontzia daude: bata paperarentzat eta kartoarentzat, beste bat ontzi arinenzako, beste bat beirarentzako, beste bat organikoarentzat, eta azkena, birziklagarria ez denarentzat. Orduan, zein da edukiontzia bidez biltzeko sistemaren beste abantaila bat? Bada, edukiontzia grisarekin argi eta garbi, inolako engainurik gabe, ikusi ahal izango dugu zein den gure bilketa selektiboaren maila, eta hortik aurrera, dudarik gabe, hobetu ahal izango dugula. Ondoren, berriz ere esan du orain bere taldearentzat garrantzitsuenena bilketa selektiboaren garrantzia jendea kontzientziatzea dela, edukiontzia txiparekin edo gabe jartzea zein den hobe orain baloratu gabe, orain sistema dagoen moduan definitu gabe dago, eta denborarekin ikusiko da zer neurri hartu behar diren sistema erabilteerra eta erosoa izan dadin, borondatez eta inposiziorik gabe hondakinak sorlekuan bereizteko modu erosoa jendeari eskaini ahal izateko.*

Maider Landak uste du beharrezko dela jendeak sistemari buruzko gutxieneko ezaguera izatea gero bozkatu ahal izateko.

Aitor Zubizarreta: *nik uste dut gai honi buruz izan ditugun osoko bilkura guztietan adostasun batera iristea eta hitz egitea eskatu dugula. Eta ez dugu hitz egin, eta ez guk nahi izan ez dugulako. Nik dudan sentsazioa inposizioarena da. Aurrez inolako eztabaiderik izan gabe, irailean galdera eginda eman zitzaigun, eta batzordean eztabaideratu zen loteslea izan behar zen edo ez. Baino, batzordean eztabaideratu zen. Hurrengo osoko bilkuran, zer ekarri ziguten? Nolako izan behar zuen galdeketak Madrilera begira, baina, galdeketa horretako kontu zehatzei buruz ez da hitz egin, ez da eztabaideratu. Aretxabaletan ados jartzea lortu dute, hemen ezin zitekeen? Zenbait gaietan –adibidez, parte-hartze portzentajearena, aukeratutako sistemarekin bereizketa maila batzuetara ez iristea...- ezin daiteke adostasun bat lortu? Aurreko oso bilkuran esan nuen, eta berriz ere esango dut: Udalbatzar moduan ezin dugu hiru sistemei buruz informazio bera eman, eta gero bakoitzak aukera dezala? Hori da demokrazia! Baino informazioa banatzen da, eta gero galderak kalean egiten direnez eta egiten digutenez, eta uste dut zuei ere bai, eta erantzuten ez dakigunez, esaten zaiguna da “gero”. Gai horiek*

guztioriek lehenagotik erabakita egon beharko lukete. Esan didate Aretxabaletan ados jarri direla, hemen ezin da? Ez dugu hitz egin, ez dugu hitz egiteko aukerarik izan, eta ez dut esaten alderdi politiko garen heinean, baizik eta udalbatzar bateko kide bezala. Herritarrei eman beharreko informazioa “bakarra” izan behar da. Eta aurreko mozioan ez zegoen inolako asmorik galdeketaren aurka egiteko, alkateak prentsan egindako adierazpenak zirela-eta, ondo funtzionatzen duen zerbaiz kentzeko beldurra izan zen, besterik ez; eta zergatik kendu ondo funtzionatzen duena? Eta azken osoko bilkuran esan zen bi herritar kategoria daudela, eta bi kategoria daude batzuk interneterako sarbiderik ez dutenetik eta ur hornidura beraien kontura kudeatu behar dutenetik, baina, hondakinen kontuan... mesedes! Badira gai garrantzitsuagoak. Eta berriz ere esango dut, ezin da hitz egin? Ez dakit zer den hori eskatzea!

Josu Ezkurdia: *lehendabizi, uste dut dena behin eta berriz errepikatzen ari garela, horretaz hitz egin genuen aurreko asteko osoko bilkuran; eta bigarrenik, esaten duzuna esateak harritzen nau, gai hau, galdeketari buruzko kontu guztiak, gehiengo osoz, aho batez, onartzea lortu denean, harritzen nau. Uste dut hiru batzordetan eztabaidatu direla, batzordeetan eztabaidatu nahi ziren gai guztiak eztabaidatu ahal izan dira, inoiz ez dugu gai bati buruz hitz egiterik galarazi; den-dena, galdeketari buruzko kontu guztiak, gehiengo osoz, aho batez, onartu da. Hortik aurrera, noski Eskoriatzan jarriko den sistema ahalik eta onena izango dela, inolako zalantzak gabe; sistema irekia izango da, horrela, hobetu ahal izango dugulako, hori lehenengo batzordean esan nuen. Lehenengo batzorde horretan txiparekin edo gabe izango zela galdu zenean, uste dut esan genuela hobeto dela irekita uztea, sistema batekin edo bestearekin lortutako emaitzen arabera, aldatu ahal izango dugulako. Bestela, galdera itxia izanez gero, adibidez, bosgarren edukiontzia txiparekin, zer gertatuko da ez badu funtzionatzen? Ezingo genukeela aldatu, galdera horrela egin zelako. Horregatik proposatzen genuen galdera irekiak egitea. Beraz, hona etortzea esanez inposatu dugula, ez dela informaziorik eman; jendea engainatzea dela iruditzen zait. Eduki nahi izan den informazio guzia egon da, sistema horiek oso ezagunak dira Gipuzkoan, bertan baititugu atez ateko sistema, sistema mistoak eta edukiontzidun sistemak. Jende guztiak daki zertaz ari garen, denek dakite zer den atez ateko, sistema inposatura, derrigorrezkoa eta ez duenak ondo funtzionatzen, askoz ere garestiagoa izateaz gain; sistema mistoa antzerakoa dela, eta bosgarren edukiontzia sistema askoz ere merkeagoa, askoz ere garbiagoa eta borondatzko dela. Hori esanda, ez dago arazorik sistema zuzentzeko -txipa ipini behar bada, txipa jartzen da; ez bada jarri behar, ez da jartzen- eta bilketa selektibo tasa altuak lortzeko. Hori horrela, azaroaren 30etik aurrera elkarrekin lanean jarraitu beharko dugula... noski baietz. Guk ezustea hartu genuen mozio bat aurkeztu zenutenean gurekin adostu gabe, ezer hitz egin gabe sarrera ofiziala eman aurretik, uztailek ari garenean zuekin negoziatzen eta gauzak adosten. Galdera ere aldatu genuen, izan ere, ez zarete konturatua Eskoriatzako galdera Gipuzkoako osoan egingo direnekiko ezberdina dela? Eta hori horrela da IRABAZIk hirugarren aukera proposatu zuelako, eta guk, borondate politikoagatik, adostasuna lortu nahian, onartu genuelako. Horren guztiorren ondoren, horri guztiari buruz hiru hilabetetan hitz egiten aritu ondoren adostasunik lortzeko borondaterik ez dela egon esatea... hipokresia dela iruditzen zait.*

Alkatea: elizateei dagokienez, elizate bakoitzean izan genituen bileretan, eta horren lekuko da Iñaki, argi eta garbi esan genuen galdeketa egingo genuela eta galdeketan guztiak parte hartu izango zutela. Elizate guztietan esan genuen, ez genuen ezer izkutatu, eta guk ez dugu ezer inposatu. Beno, gezurretan ari naiz, baten ahaztu egin zitzaigun, Gellaon, besteetan esan genuen. Eta ez dut gehiago eztabaidatu nahi, baina, iruditzen zait inposizioaz hitz egitea gehiegia dela, egindako bilera guztietan argi eta garbi esan genuenean zein zen gure asmoa.

Rafa Bernal: *pixka bat atzera eginez, eta berriz helduz esan duzun horri, mundu guztiak dakiela zer den sistema bakoitza, gaur egun oraindik zalantza egiten dut zer den edukiontzia grisa, errefuxaren grisa ote den, berde grisezka oten den, edo zer kristo den, nik, gaur egun, ez dudalako garbi zer den bosgarren edukiontzia, niretzat bosgarren edukiontzia errefuxa delako, eta errefuxa birzikla ezin den edo beste edukiontzieta bota ezin den guztia baita; baina, niretzat ez da nahi duzuna bota dezakezun edukiontzia; baina, borondatezkoa denez, ez da grisa, berdea da, eta horrekin atzera egiten dugu, orain dela 10 urtera.*

Josu Ezkurdia: *harrigarria egiten zait zinegotzi batek, IRABAZIko zinegotzi batek, bera izanik galdera bakoitzaren deskripzioa egin zuena, ez jakitea zertaz ari den hitz egiten.*

Rafa Bernal: *galderari testuingurua emango dion sarrera falta zaio. Galdera dela galdeketaren eduki osoa esatea iruditzen zait... ez, ez da horrela.*

Josu Ezkurdia: *barkatu, baina, berriz diot zuk onartu zenuela galdera, eta ez baldin badakizu zer onartzen ari zinen, ba horrek asko esaten du batzorde eta plenoetan entzuten duzunaz.*

Rafael Bernal: *niri esan zitzaidan galdera bat bidali behar dela Madrilera, bakarrik galdera, eta hori da adostu dugun galdera, honako hau jartzen zuen galdera: bosgarren edukiontzia edo atez atekoia, eta neure buruari esan nion, bada hirugarren sistema, eta uste dut beste buelta bat eman behar zaiola galderari, ez gainontzeoari, gainontzekoa berez etorriko zela jotzen baitzen; eta gero, ez da etorri. Gero zuk esaten duzu galderan dagoela guztia, dena hor sartuta dagoela; galdera aztertzen baduzu prozesu osoa ulertzeko gai zara.*

Aitor Zubizarreta: *askotan hitz egin zaigu presari buruz. Presa egon da, eta horregatik, zer gertatu da hemen? Galdera onartu genuen eta eztabaidea loteslea izatearen gainekoa izan zen. Eta, orain gaizki ulertu bat daukagu. Hasieratik esan genuen loteslea izanez gero, emaitza guztiok onartu beharko genukeela, ez bakarrik Udalak. Eta orain hau esaten zaigu: ez, ez, bakoitzak nahi duena egingo du. Gaia hor daude. Herritar batek bere zaborra errekarra bota nahi badu hurrengo hilabeteetan, zer? Kontzientziatu behar dugu? Horri buruz hitz egin beharko genukeen, eta hori zen eztabaidarako puntu bat. Ez dugu ezer adostu, eta noski galdera onartu genuela! Nork esango zuen ezetz? Eta gero esan genuen galdeketa bat nola egin behar den arautu behar genuela, eta onartu genuen, baina ez da besterik egon. Ez da besterik egon! Ez esan hitz egin dugunik. Eta gero, Joxerrak mezu bidez esaten digu galdeketa 29rako deitza erabaki duela. Eta, guk ez genuen ezer esatekorik? Eguna egokia zen edo ez, edo hau edo beste hori... ez dakit, mozioaren atzetik zerbat egon zela zuk uste duzun bezala, guk ere pentsa dezakegu horrelako zerbaile dagoela eguna abenduaren 20ko hauteskunde orokorrak baino lehenxeago jartzeagatik, hau da, jendeak pentsatzea EAJ/PNV-k bere hitza betetzen duela eta hori propaganda bezala erabiltzea. Hori pentsatu dezakegu, ez? Baina, ez gara horrelakoetan sartuko. Herrian haserrean sortu duen gai baten aurrean gaude, arindu beharrekoa eta denon artean lasai landu beharrekoa, eta... berriz ere horrekin; jendea nazkatuta, eta gainera, ez dakigu zer bozkatu behar dugun. Zuen iritzia, guztiaren aurrean, da bakoitzak gura dezana egin dezala, eta hori ez da horrela izan behar, nik uste dut herriari zerbaile konsultatzeten zaionean konsultatik ateratakoa denok betetzeko eta zuzen betetzeko dela. Horretarako konsultatzeten da, denon artean erabakitzzen dugu eta denok betetzen dugu.*

Josu Ezkurdia: *beno, lehendabizi esaten duzu gauzak presaz egin direla, eta nik ez nioke presa deituko, eraginkortasuna eta kudeaketa ona deituko nioke, hau da, PNV eredua hain zuzen ere. Bigarrenik, inposaketaz ari zara, eta herri hau aspertuta dago bi urte eta erdiz gauzak modu*

txarrean egiteaz. Guk kanpainan esan genuen, eta Udalean sartu ginenetik esan dugu: ez dugu jendea behartu behar gauzak egitera, konbentzituta gaude jendeak badakiela gauzak ondo egiten eta ondo egin nahi dituela; eta bost edukiontziko sistema bultzatu behar dugu hori delako gauzak ondo egiteko modua, eta seguru gaude funtzionatuko duela inor behartu gabe. Argi eta garbi dago gure eredua eta zuena guztiz ezberdinak direla.

Aitor Zubizarreta: *inposizioaz hitz egiten ari gara. Herri honetan ingurumen arloan: abiadura handiko trena, autopista... zenbat konsultatu du gure gobernuak? Horiek egiteko nori konsultatu dio? Historia pixka bat nahi duzu? Noiz sortu zen autopistarena? Urteak dira... Autopista egin edo ez eztabaidatzen hasi zenean, herriari konsultatu zitzzion, hobe esan, talde jakin batzuei, eta ezezkao atera zen. Zertan gelditu zen? Egin, egin da. Abiadura handiko trena, nori konsultatu zaio? Eta gauza bera beste gai batzuetan, hemen aipatuko ez ditugunak, nik beste gaia dakart. Hitz egin dezagun! Herriari eragiten dioten gaiei buruz hitz egin dezagun, eta ez didazu esango, ba, gai horri buruz hitz egin dugunik. Ez dugu aukerarik izan! Zergatik lortu dute ados jartzea Aretxabaletan? Zer gertatu da han? Hitz egin dute, guk zergatik ez?*

Rafael Bernal: *gaiari buruz hitz egin ez dugunaren adibide garbia da gaurko eta aurreko osoko bilkuran horretaz aritzea.*

Josu Ezkurdia: *ez dakit nor mareatu nahian zabiltzaten. Gaiari buruz hiru batzordetan eta osoko bilkura bitan hitz egin da. Hortik aurrera, nahi izan duzuen guztiaz hitz egin da, gai bat edo beste ez duzuela atera... zuek jakingo duzue zergatik. Nik uste dut arazoa ez dela hori, nik uste dut arazoa dela inork ez zuela uste PNV-k galdeketa egingo zuenik eta Madrileko baimena hain azkar etorriko zenik. Uste dut arazoa hori dela, gure konpromisoak markak hausteko denboran bete ditugu, eta uste dut horrek kezkatzen zaituztela. Guk, hondakin bilketa sistemari buruzko galdeketa ahalik eta azkarren egingo genuela agindu genion Eskoriatzako herriari maiatzean, eta bete egin dugu.*

Rafel Bernal: *Zorionak!*

Josu Ezkurdia eta alkateak: *eskerrik asko!*

Maider Landa: *oker ez banago, hemen galdera onartu zen esan zigutelako presa zegoela Madrilera bidaltzeko, eta gero hitz egingo zela beste guztiaz. Aldameneko herrian gauzak azkar baino ondo egin diren adibide garbia dugu. Galdeketa urtarilean egingo da, eta uste dut ez dela berandu, eta hala ere, eztabaidatu diren hainbat kontu jarri dira mahaigainean. Nik alboko herriko prozesua txalotzen dut.*

Josu Ezkurdia: *berriz diot, uztailetik, orduko osoko bilkuran hartu baitzen galdeketa egiteko konpromisoa, asteak, hilabeteak izan ditugula nahi izan dugunaren gainean hitz egiteko. Ez badugu hitz egin beste zerbaitetan izan zaretelako izango da, agian. Eta, harritzen nau Aretxabaletako galdeketaren prozesua txalotzea zuk, eta ez Eskoriatzakoa, zuk onartu duzunean Eskoriatzako galdeketa prozesua.*

Maider Landa: *presa zegoela eta hitz egingo zela esan zidatelako, eta horregatik onartu zen aho batez. Baina, hitz horiekin.*

Aitor Zubizarreta: *eta amaitze aldera, dagoen nahasmenari buruz, oker ez banago Bergaran bi aukera eskaintzen dira: bosgarren edukiontzia eta atez atekoa, baina, atez atekoa ez da orain*

dutena, oraingoa mistoa delako, eta beraiek atez atekoa deitzen diote. Hori ari da gertatzen. Eta zuk badakizu. Zeri deitzen dio jendeak atez atekoa? Hemen jendeak galdetzen duena da zer den sistema mistoa.

Josu Ezkurdia: *egia da, Bergarako sistema mistoa da, guretzat Eskoriatzan jarriko zen sistema mistoa eta atez atekoa ia gauza bera dira, biak ere garestiak dira, gaizki funtzionatzen dute eta ez dira erosoak. Horregatik, guk bosgarren edukiontzia alde egiten dugu. Zergatik ditugu hemen hiru galdera bi izan beharrean Aretxabaletan edo Bergaran moduan? Adostasunera iristea nahi izan genuelako eta IRABAZIk sistema mistoa proposatu zuelako. Behar bada, berak erantzun beharko lioke horri.*

